



Olgetan eta benetan.

“Umea beti ume”, esan izan da. Baña umeek danak ez dabe uste izaten gizonak ez diranik. Euren olgetectan eta autuetan gizon itxurak eta plantak agertzen dabez eta euren egiteak aintzakotzat artzea eta goratzea atsegin izaten yakue. Bestela arpegi illuna ipinten dabe.

Baña zarritan nagusiak eukiten dabe erroa. Munduko nazio asko ikeratuta, estu eta larrituta dagoz euren umeen jokera eta gaizkille bideak ikusirik. Leku askotan umeak euren aingeru izate ona eta mantso-tasuna galdu egin dabe. Egunero diardue periodikoak eta errebitak ingurueta ume eta gazteen zantarkeriak azaltzen.

Zergaitik aintbeste gaizkille gaurko munduan? Danok izan gara umeak eta danok dakigu umeentzako pitzirik eta politena egin antzarik geiena dabena dala: negar egiten daben muñekatroak, tiroa botaten daben pistolak eta abar. Eta ez da ikusten pistola, eskopeta eta ametrallador gitxi gure kalietan ume koskorren eskuetan. Eta benetakoak emoten dabe zarritan.

Umeak olako gauzakin bildurra galdu egiten dabe eta lenengo aukeran elduko deuse euren aiteen eskopetari eta eskura yortokuezan olako tresna guztieri.

Euren autuak gerra autuak dira, euren jolas-olgetak bata besteari jarraika eta il

ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

VIII URTEA - N.º 82

IRAILLA (8) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

planteetan igaroten dabez. Euren amesetak be bai zarritan.

Eta ez uste izan gauza oneek euren inportantzia ez dabenik. Umea egin egiten da olako gauzetara. Batez be badatoz zarritan ikusten diran zine eta tebeoak. Euren biotzak maitasun ordez gerra eta amorru sentimentuz beteten dira. Zer egiten dabe ba bestela komunista nazinoetan? Au egia ez danik ez esan, agerpen larregi dago inguruetan eta. Errebista batek baño geiagok egin dau berba onetzaz.

Danak diñotsee gurasoeri zur ibilteko eta olako pitxi zantarririk umeeri ez ekarteko. Beste gauza asko dagoz umeentzako eta orrek baño egokiagoak eta bearrezkoagoak. Ondo bete bear da umearen biotza, baña gauza onez. Umea zeuk nai dozuna izango da, nai badozu kriminala, nai badozu aingerua.

Gurasoen ardurua aundia da ba au. Kristinau sentimentu mardul ederrak sartu bear dira. Eurak artuko dabez lenengo frutuak.

Antonio Zubizarreta



Biarrerako ordu barriak

Biarra kastigutzat daukogunetik nekagarriri ta kantsagarria biurtu iaku. Lengo batean, biarra jolasa ta olgeta izan ei zan gizonantzat, gaur barriz, bere familia edo bere partikarak ondo ikusi gura dabenantzako biarra ezta izaten ain bigun ezta ain erreza bere.

Kristiñaua, barriz, ezta arritu bear biarra leporatuten dabenean, ezta ikaratu bear biarreraren ezten zorrotzaren aurrean. Biarra, ondo eroan da, gaurko gizon pekarientzako penitentzirik aundiena ta ederranatarikoa da.

Komunistek euren egokera daukoe biarreraren aurrean, gurea, katolikuena auxe da, biarra penitentzi bat lez artutea.

Olan bada nire ustez gizonak beti ibilli bear dau lurrerantz makurtuta, asto bat lez, ez olgetako, ez ezetarako ezta iñorako itxaropen barik?

Neu naz ezetz lenengo erantzuten deusuetena. Iñok bere ez deusku eskatuten orrenbeste, ezta Jaungoikuak bere

Komunisten jokeran barriz, gizona beti dago biarran. Biar egin bear da —diño— gizona aundiago eta baketsuago bizi daian,



baña bake au aregatik edo onegatik itota egoten da. Bost urtetik bost urtera dator euren mandatariek agindutako biarrak eta olan dabiz biarririk ez egiteko biarran. Komunismuari biarra faltaten iakon egunea galduta dago edo orduntxe galduten asiko da.

Gizona ezin da bizi biar barik, ezta beti biarrean bere, orregatik ondo pentzautako biar-ordu barri baten beartasuna. Gaurko gizon eta gaurko biarrak, biar-orduak beste era batera ipintea eskatuten deusku. Beste era au billatutea ez da ain gauza erreza; erri askotan biarrerako orduak eta egunak antziñatik truketuta dagoz. Baña truke onek gauza asko daroaz aurretik, ekonomi, soziedadeko bizitz osasungarri bat eta abar.

Zelan dagoz Españi'n biar-orduak?

Orañanteko biar-orduak ba-daukoez euren gauza onak baiña baita euren gatxak be. Orregaitik, gaurko biar-orduak beste barri batzuegatik truke bearra danok sentitzen dogu.

Gaur sentitzen dogu, baiña oraiñarte ez togu sentidu arlo ontan gauza barri baten beartasunik. Beti da gauza errezagoa antziñakuari jarraitutea; onegaitik ez gara konturatu antza beste gauza barri baten beartasunagaz. Au olan da, baiña eztogu orregaitik gauza txarrik egin, edo egin badogu ez daukogu errurik ez bai'gara konturatu. Gauza barriak berez eta denporiagaz dator. Gauza zarrak jarraitutea txarra bada, txarragoa da gauzak aurreratutea, ba orduan arda zarrari barria botakeran pasaten la kon kontua pasako iako.

Olan ba, nire ustez, gure artean, biar ordu kontuetan ondo egon gara beste modu barririk iñok ez dabelako pentzatu. Orain, gaur, gure barruan beste gurari barri batzuk bistu ta zurru-murruka dabiltzazala. Ia ba, billatu eta zeindu dagiguzan gure barruko gurari ta naiak, gero kanpora urtekeran ondo bete daitezen.

Benetan, gaur eguneroko biarrak deskantsu asko eskatuten deusku danori. Esku-biarrak asko dira oraindiño, baiña esku-biar oneri geienetan —ogeigarren gizaldiko gizonari— buruauste aundiak dakantsoz.

Olan gauzak ikusita, biarrerako beste ordu egokiagoak billa dabil jentea. Leku batzutan arlo au ondo sustraituten asi dala emoten dau: beste era batera ipiñi dira biar-orduak eta onegaz —pentsatzen dogu— espainitarren bizitzak beste izakera biziago bat artuko dabela.

Biar-orduak aldatutea bear-bearrezkoa dogula aitortu dagigun. Jate ta afaritako or-

duak kaltegarriak eta ezinezkoak dira, eta osasun indartsu ta biar normal baten kontrakuak.

Kaltegarritasun au uri eta erri aundietan oraindiño aundiagoa da, ze askontzako eguardirako etxera allegatea Sollube edo Gorbea'ra igotea baiño txarrago iatorkue.

Olan da guztiz bere, begiratu dagigun biar-ordu barri batek zer dakarren atzetik, edo zer eroan bear daben aurretik, eta zer eta zertzuk lagundu bear deutesen. Munarriak lez jarri bear doguz aurretik kondiziño batzuk: biargiñak alogere on eta neikua irabazi daiala, kultura ta jolaserako toki egokiak euki daizala, baita izan daizala etxe baketsu eta pozgarriak eta bearrezko lo-orduak.

ALOGERE NEURTU TA NEIKUA.—Fabrikak, ofiziñek eta abar... bost edo seiretan itxitzeak zetako balio dau, justu-justuan bizitzeko, extrako orduak "sartutea" bear-tuta arkituten bada biargiña? Orregaitik, irabazi neikua, ostarantzean, zertarako biar-ordu barriak?

KULTURA TA JOLASERAKO TOKI EGOKIAK.—Biargiñak bost edo seiretan urteten badabe euren biarratik, —esate baterako, diru neikua irabaziaz—, zer egingo dabe ordu libre orretan, kultura edo euren biarratzaz zeozer geiago ikasteko, edo euren afiziñoako gauzetara joateko lekuriak eta

tokirik ez badaukoe? Irabazi daben dirua batek daki non urtuko dan...

BEARREKO LO-ORDUAK.—Bai ba, goizean goize altsa bear bada, gabaz ainbet ariñen ogera joatea obeto. Baiña ziñak, ardautegiak, kafetokiak eta beste toki antzeokoak gabeko orduetan itxitzen badira. España'ko gizonak lo egiteko astirik barik geratuko dira. Bear-bearrezkoa da ba, ordu-barri onek danentzako gitxi gora-bera bardiñak izan daitezcan. Ez dagigun gauontzat bizitzeko egin, olan bakoitzak, biaramonean berari tokaten iakon biarrari ondo baiño obeto utsiko deutso. Biargin gautarrak eztauko sentidurik, batez be gaur egunean.

Gauza danak ezin dira egin alda batera, baiña goazen apur-apurka biar-ordu barriaren albo onak eta txarrak aurrez ikusten, pauso onak emon dagiguzan, eta batez be, gorago ikusi doguzan lenengo ta bigarren puntuak gogoratu dagiguzen gauza on bat egin gura badogu.

Biarrerako ordu barriak gura badoguz, lenago bete daitezela esan doguzan kondiziñuak, erriren baten jaso dana barriro gure artean ez dagian: ordu barriak emon baiño lenago komerzio bat amarretan zarratuten zan eta barriak emon da gero ordu orretantxe zarratuten jarraitu eban.

Matzorri

AMAREN ERIOTZA

Juan Ibarzabal

Milla bederatzireun
Berrogetabata
Otsailak ogetabi
Eta larunbata
Amarrak baño leno
Bederatzik jota
Goiz artan artu gendun
Disgustu galanta
Ura baizan negarra
Amatxo il zan-ta.

Ama maitegarria
Juan ziñan mundutik
Ia entzuteidazun
Zagozan lekutik
Orra bertso batzuek
Semian agotik
Beti zugaz pentsatzet
Goizian goizetik
Nik etzaitut aztuko
Mundukuakgatik.

Azkeneko arnasa
Eman zendunian
Antxe egondu nintzan
Oian barrenian
Nik al izan nuenik
Modu onenian
Otoitz egiten nuen
Zure izenian
Ama zeruratzeko
Bide zuzenian.

Bular gañin arturik
Esku ta besuak
Tristiak izan ziran
Orduko pausuak
Aitak amarentzako
Malko ta mosuak
Ori ikusi gendun
Fameli osuak
Or azken partiera
Gure gurasuak.

Kanpo santuan sartu
Igande goizian
Entierrua egin
Lenako klasian
Senidiak guziak
Ara batu zian
Egun-artako itzak
Ain illunak zian
Neri etzat aztuko
Bizitza guzian.

Aita Imanol-ek

Irlandatik

ATLETISMO JOKUAK

Gaur zabalágo verba egingo deusuet Europako Kristiñau Estudianteen Atletismo Jokuen gaiñean. Zerbait esan neutsuen lengo illeko kronikan.

Igaz, jokuok Donostian izan zirean. Aurten, Irlandan, julioaren 17-tik 21-erarte. Naziño askotako atletak batu dira. Danak, gazte gazteak. Amazortzi urtetik beerakoak. Zarragoak ezin daikee jokatu.

Dublin-etik urre, Gormanston-en, ikastetxe eder bat dauke fraille frantziskanoak. Europako ederrenetarikoa ei da. Berton nago ni demporadatxu bat igaroten. Ona datozen guztiak, arrituta gera'uten dira kolegioaren edertasunagaz. Barri barria da. Aundia, argia, garbia, guztiz modernua. Depor-te egiteko, errezpide guztiak daukaz: zelaiak, frontoiak, pistak, ugertokiak.

Berton egon dira hostatuz estudianteak host egunean, jokuak irauñ daben bitartean. Nataziño probak berton izan dira, eta Droghedan —alboko erri baten— osterantzeko jokuak.

Españolok

Españiñiko estudiante grupoa guztiz indartsua izan da. Nataziñoan eurak irabazi dabez urrezko medailla guztiak. Basketbo-

lean eurak izan dira nagusi, eta atletismoan iñoizko ondoen ibilli dira.

Jokalari geienak, katalanak izan dira ventajaz. Gero, euskaldunak. Eta urrengo, beste provintzietakoak.

Entrenadore baten lagun aundi egin nintzan. Euskalduna bera. Eta alako baten, atletismoa zelan dagoan Euskalerrian galdetu neutsan.

—Atletismoa txarto, Kataluñiaren aldean. Guipuzkoan, Bizkaian baiño obeto. Atleta ona izateko, entrenamentu asko egin bear da; eta orretarako leku egokiak bear dira. Donostiarrak pista eder bat dauke Anoetan. Lastima aundia, Bilbaotarrak beste orrenbeste ez eukitea. Orrezaz gaiñera, zaletasun gitxi dago Euskalerrian atletismo jokuetarako. Atletismoak ez dau dirurik emoten, eta eskatu bai idealismoa, sakrifizioa ta perseverantzia. Euskaldun gazteak ez dira, bear dan beste, konfuratuten amateurismoaren importantziagaz. Eta azkenik, Euskalerrian —noren erruz?— atletismoaren alde alegin gitxi, propaganda gitxi egi-ten da.

Frantziskanoak

Kolegio onetako frailleak importantzia aundia emoten deutsoe atletismoari. Entrenadore bi daukez, eta biak dira frantziskanoak. Bata, fraille izan orduko, boxeadore

izan zan; eta bestea, urtean urtean joaten da Inghaterrara, entrenadore ofizioa obeto ikasten.

Ona emen eurentariko bategaz beñola ruki dodan alkarrizketea:

—Ze impresiño emon duetsue espiñol atletak?

—Oso ona. Mutil guztiz leberak dira, jasekoak, ondo entrenatuak, eta atletismo-rako kapazidade aundikoak. Total asko eraso deuste euren bizkortasun eta flexibilitadeak. Diskoa ta burdiñezko bolua jaurtigiten ez dira ain onak izan, beste naziñoetako mutillak aundiagoak eta indartsuagoak izan direalako.

—Español atleten artean, zeñek impresionatu zaitu geien?

—Duda barik, Alberto Esteban-ek eraso deust geien. Zaragozako korrikalari onen markea, 1.500 eta 800 metroko karreran, izugarria izan da. Beste markak-bere, jaurtigiten eta pertika saltuan, biziki onak izan dira.

—Zelan zagoze Irlandan atletismo kontuan?

—Beste naziñoen aldean txarto. Baña tiral Urtean baiño urtean obeto dabilta. Atleta onak atarateko, klub asko bear dira; eta oriez da posible Irlandan, gure populaziñoa guztiz eskasa da-ta. Gaiñera, gobernuak ez deusku oraiñarte ezetan lagunduten. Alan ta guzti-bere, beti irabazten izan dogu medaillaren bat Joku Olimpikoetan.

—Zelan dago atletismoa kolegio onetan?

—Ondo ondo ez. Gure kolegioa eginbarria da. Bost urte bakarrik daukoz. Oraindiño tradiziñoa falta jaku atletismorako.

Baiña ori gorabeera, Irlandako beste kolegio asko baiño obeto gagoz. Aurten, Europako Kristinau Ikasleen Atletismo Jokuotan zazpi mutil presentatu doguz.


—Entrenadore zarean aldetik, zeintzuk dira zure aurrerantzeko planak?

—Ba... biztu mutillen artean atletismorako zaletasuna, entrenamentu geiago egin urte guztian batez-bere neguan, sartu basketbola kolegioan, eta ikasi obeto neure ofizioa, atleta onak atarateko.

—Zure ustez, atletismoa zegaitik da ona mutil gazteentzat?

—Errazoi askogaitik. Lenengo, atletismoak asko lagunduten deutse gorputz osasuntsua eukiten. Bigarren, katora botaten ditu mutil gazteen burutik beste zaletasun zantarrak. Irugarren, sortu ta indartu egiten ditu euren biotzean virtute ta kualidade on asko, erate baterako, pazientzia, determinaziñoa, sendotasuna ta perseverantzia. Atleta batek sakrifizio asko egin bear ditu. Ta azkenik, gaur egunean gazteen artean krimen ta delinkuentzia gitxiago egongo litzake, mutillak atletismorako zaletasun geiagoko baleukoe.

Gormanston, 1961, agostuak 1



Senargaia aurrean!

Gaur esan gura deutzuetazan gauzak, neska gazteentzat bakarrik izango dira, senargaia artzeko dagozen neskatilleentzat. Oar-txu batzuk. Zelan portatu bear zareen zuen bizitzako gai gataz orretan.

Zuen errian edo auzoan zenbat gura mutil eukiko dozuez. Eder, sendo, aberatz, langille... norbaitekoak. Ez izan bildur. Orretariko baterenbat zeuen atzean ibilliko da, itxututa, zeuen maite-miñez. Iñork ez deutsue agertu oraindik zuenganako maite-miñ ori? Zelan ez! Baña, kontuz! Astiro ibilli.

Bai-itza emon orduko iñori, ondo ezagutu bear dozue "laguna". Nor da?, ze guraso ditu edo zelako nortasuna dau? Izen onekoa ete da ala ez? Laguna ondo ezagutu barik eztozue erabakirik artu bear. Itxaron. Orretarako, mutil-laguna ezagutzeko, alkarberbetak dozuez, alkar-ibilletak, paseoak, plaza dantzak,... Baña, oraindiño ez. Ezin zeinteketze emaztekotzat eskeiñi edozein mutil gazteari arpegi galanta daukolako edo diru-otsa partikaratan... Um! Txakur-aundiak izan leitekez... Gero, bai; ezagututa gero, akatzrik ezpadeutsazue arkitzen eta mutil galant ori aukerakoa ba-dozue, orduan esan deikiozue maite dozuela, senargaietzat gurako zengiela.

Zuen senarra izatekotan dagon mutilla edo senargaia ondo ezagututen ezpadozue ezkontza aurretik, gero alperrik izango dira negar-sotiñak eta bärriketak. Berandu. Ezkontzako konpromisoa —badakizue— bakarra ta betikoa da. Neska gaztetan egon ziñeen egoki gauzia artez eta buru-sentsunez egiteko. Orain... betiko!

Baña, berba ori bete orduko, beste egin bear bat be badaukozue zuek, neska gazteok: gurasoen baimena. Aita-eme askoren usarre-zioa auxe izaten da. Alde batetik, gurasoak euren seme-alabak bizi bide barria artu bearrean dagozanean, umeen zorionari baño euren gogoari geiago ta obeto begiraten deutselako; ta bestetik, etxera datorren mutil edo neskatil senarra gurasoen gurarikoa ezalako, seme-alabak gurasoen aurka ezkondu diralako, euren baimena eskatu barik. Negargarria! Baña, errua norik? Errua alderdi bietan izaten da: gurasoen egoismoan eta diru-zaletasunean, eta seme-alabeen nakarkerian.

Alaba gaztea ezkontza aldian edade-zarrakoa izan arren, seme garean guztiok badaukogu gure gurasoakaz iñoz ordaindu ezin dan zor bat, zorra. Azteko ta gizon egiteko

emon dabezan izerdi, buruko miñ, negar eta beste erabaki askoren zorra. Orregaitik, justizia bearrez, errespetoa ta maitasuna guradeutsaguz gure gurasoeri, bizitza guztiaren maitasuna ta errespetoa. Eta errespeto on bidez, gurasoak jakin egin bear dabe euren seme-alabak nogaz dabiltezan eta nogaz ta kondu gura daben.

Egia da. Gurasoen iritxia betetzeko bearrik eztozue, zuen edadean bakotza norberaren buru-jabe da-ta. Baña, iritxi ori eskatutzean gurasoeri, gogoan euki, neska gazteok, eurek, zarragoak diran aldetik, argi geiago euki daroela eta zuek baño asko obeto dakiela zelan jokatu bear dan gura orretan, senargaia artzeko garaian. Gaur, sarri bestetera ibilli arren, norik orain ezabela gura zuen zoriona ta oma?

Jakiña da, barriz, maite zaituen mutilen izen itzarrekoa ta gaizto-pekataria baldin bada, eztaukozuela zertan itxaron gurasoen iritxia ta asmoa. Zeuek izan bear zarie ez itza emon bear deutsazuenak, gogotsu, berba orrek biotza'ren zatia kenduta be.

PELLO MARI anaiak





1. ROMA.—

Oraingo danok irakurriko zenduen Aita Santuaren berba'di edo enziklika barria, MATER ET MAGISTRA deritxona. Enziklika orretan Aita Santuak gizarte auziak erabilten ditu; beste gauza askoren tartean, barriz, diñosku Aita Santuak nagusi danak, kristiñau eta katoliko nagusiak, egin bear dabezela alegiñak euren morroiak lanaren ondasun eta irebazketan parte izan daitezen. Orixe dala nagusien indarregia kentzeko ta langillen guraria biztuteko erarik onena. Aita Santuak eztau galerazoten ondasunen jabetasuna, bakoitzarena, baiña gura dau Berak jabetasun ori gizon guztiena izan daitela, al diran gizon geienena. Komunismoa bein da barriz kondenatuten dau eta baita jaiotzen neurtiketa gaiztoa... Ez aztu ba, kristiñaua, Aita Santuak berba egin deusku guri ta baita borondate oneko gizon guztieri. Entzun ondo ta ekin obeto.

2. Kantauriko Itxaso.—


Itxaso! Zeinbat gauzatarako ez dau balio itxasoak! Arraintzaleak, udazaleak, edo beraneanteak, nazioak, itxaso bear dabe Baiña orain ille bete, Kantauriko itsasoan denporal itzel bat izan genduan. Illak berrogetak eta onduriko barkoak dozenak. Nargar ugaria ekarri euskun denporal orrek.

Edonok esango dau ori gerta jakela gure arraintzaleeri ausarditsuegiak diralako edo urrunegi joaten dira'ako baiña ezta ori^oegia. Ba-dira emen beste egi garratzago batzuk. Gure arraintza'eak ez lirake ain urrun joango ezta itxaso zoro orretan ibilliko, eguneroko ogia irebazi bear ez balebe: Orixe da egi bat: «zeuen bekokiko izerdiagaz irebazi bearko dozue eguneroko ogia» —esan euskun Jaungoikoak, eta orra or gure arraintzale gaixoak euren bekokiko izerdia, eta bizitza guztia, eguneroko ogiagaitik emoten. Penagarria! Eta bitartean, gure udazaleak ondar-lekuak beteten. Ezta txarto! Ederto dirudigu guztiori eguzkiaren beroa kenduteko ondar-lekuetara joatea, baiña ez jaku orren ederto iruditen onen beste gizon kosta dan itxasoa beste batzuentzat udazaleentzat, pekatuzko atsegin-leku biurtutea. Ez. Obe dabe eurek eskua luzatuaz, il-dako arraintzaleen guraso ta senideri lagunduten asitea, kristiñau maitasunean bat egiñik.

3. MUNDUA.—

Teknikoak. Askeneko amar urteetan EE.UU. eta U.R.S.S. izan dira tekniko geien emon dabezana nazioak. Ordurarte Europa zan ugariena; Europako teknikoak ziran geienak eta onenak; baiña, orain lotan dala diño. Esate baterako, Rusiak milloiko 400 ingeniero ditu, 780.000 milla totalen; EE.UU.'k 200 milloiko, 480.000 eta Europako nazio burudunak milloiko 70 bakarrik. Ikusten dan legez, ba, Rusiak ditu tekniko geienak eta, gañera, EE.UU. asko atzeratuta ei dabil.

Gertakerak



BURUZAGI BATEK EZ. Bere askenengo urteetan Hitlerrek apenas ezer ikusten eban antijo barik. Baña bere arrokeriak ez eutson isten alako trastiakin bere erriaren aurrera agertzen. Esan eutsen bein betiko ipinteko antijo on batzuk, baña berak erantzun eutzen: “Ez, olakorik ez, buruzagi batek ez dau eroan bear iñoiz antijorik”. Eskribiduteko be alako makina aundi bat ibiltzen eieban, letra aundiko makina bat. Azkenean antijuak be ipini ebazan baña ondo gordeta eroaten eiebazan, eta gitxitan joaten eizan etxera osorik ebazala bere berotasun bizian auts biurtzen eiebazan eta.

* * *

ORIXE DA AMERIKA: Otel pillo baten jabea an ebillen bere etxeak ikusten. Sutondoan aurkitzen dau gizon zaartxo bat bere gauzatxoak ordendu ezinik. Triste eta illun egoan aguretxoa. Difiotso jabeak:

—“Aupa gizona, poztu adi. Neu be plater garbitzen asi nintzoan eta ara gaur aberasuta”.

—“Bai, esateko be... ba ni otel dirijitzen asi nintzan”.

* * *

GAUZAK ARGÍ: Eskozia aldean ebiltzan amerikatar bi, bata baño bestea arrogoak eta dirua eta berbea parra-parra zabalduz. Euren zuzendaria bertako Eskozia-ko gazte bat zan. Amerikatarrak danari begiratzen eutseen begi txarrez, dana ezerezizat botaten eben. Alako baten erakusten deutse alako etxe aundi eta eder bat. Eta amerikatarrek barrez difiotse:

—“Alako gauzea... olakoak eundaka daukaguz Amerikan”.

—“Ez da arritzekoa be —erantzuten deutse besteak— zoro etxea da ori ta”.

BEGIA EUKI BEAR: Joan iakon bein Benedikto XIVri abogado bat, bere gazteko lagun zaarra, eta laguntza eske. Aita Santuak baietzkoa emon eutsan esan: “Biar eleiza aundi bat bedeinkatu bear dau Jente asko izango da. Zoaz ate ondora ez zagoz antxe ni noanean, urreratu zaitetz gero nigana nire antxiñako lagun zaar bat laguz”. Danak ikusi eben urrenge egunen Aita Santua bere lagun zaarrari mosulatu. Jakin ebanian jentia Aita Santuaren lagun zaarra zala danak eroan nai eben eutsetxetara eta arazoetara.

* * *

ZER EGINGO DA BA? Artista bakotz bere gauzak eta jokerak izaten dauz. Egun musikoak be inspiraziñoa aurkitzeko gauza barregarriak egiten dabez. Gluck'ek egin nai baeban landa zabal baten erdian jesarri bear izaten eban. Haendel'ek botelak bat ardu gorri euki ezker aingeruen kantak asmatzen eiebazan. Mozart'eri bidetuek ieatorkezozan inungo kantuak. Haydn'ek errotarik eta politenak eta onenak jantzi bein izaten ebazan, eta ganera bizarra ondo kendu, bestela ezer bez. Sacchini bere emazte eta bere etxeke katua onduan ez baebazan asi be etzan egiten, inspiraziñoarik ez inuridik. Beethoven'ek be eskuak ur otzetan sartu bear izaten ebazan musika egiteko. Zer egingo dogu ba?

* * *

PATATAK: Jonatan Swifteri itaundueutsen bein zer pentsatzen eban aberatsetzaz. Erantzun eban:

—“Gurasoegandik dana artu dabenak patatak dirala, euren ondasun guztia lurpean dago”.